

# EUSKAL-HITZ,

J. - B<sup>te</sup> ALTHABE,

ERRETOR ONDO, BILZAR-LAGUNAK, EUSKALZALEEN-BILZARRARI  
HEL-ARAZIAK.

---

Jaun aphez J. B<sup>te</sup> ALTHABE, Jainkoak aurthen bereganat deithu duenak, hel-arazi zauzkigun, 1910<sup>eko</sup> bilkhurat, 357 euskal-hitz berezi <sup>1</sup>.

Hitz hekiekilako guthunean berak zioena, ez zituen hitz hek Maulen nihorenganik aditu. Gero bai ordean, bere bikalgoako eta bere erretorgoako berrogoi bat urthez, aditu eta altchatu zituen, euskara baizik ez zakiten herritar batzueganik, bai eta ez gutienik *Baratçabal*, Atharratzeko bere erretor, eta *Iribarne*, Zalgizeko erretor, bi euskalzale garbirentzat ezagutuak zirenen eta aspalditto zenduak direnenganik.

Hitz hek guziak bada, 1910<sup>eko</sup> agorrillaren 25<sup>eko</sup> bilkhuran, agertu zitzaizkolarik, Nere Jaun *Jean de Jaurgain* buru lehenak erran zuen, hitz hek guziak partuko zitzaizkola, Don *Resurreccion-Maria azkue-koaren* Hiztegiari, hetarik Hiztegi hartan ez zaitzenen izateko artha handiz altchatuak eta *Don Julio Urquijo*-koaren Hilabetekarian argitaratuak.

Huna beraz hemen behera, hitz hetarik erran den Hiztegian aurkhitzen ez direnak, edo han aurkhitzen direlarik, han diotenaz zerbeit gehiagoko erran nahi dutenak <sup>2</sup>.

## I. — EIHERA edo ERROTETAKO

GAUZEN IZENETARIK

1. *Ahüntza*. — Tresna bat altchatzen dena, uraren sartzerat uzteko.

---

1. — Hitz hoitarik badire, aithor dugu, garbiagorik gabez, derabilzkatena.

2. — Don *Res-Maria Azkue-koak* bere Hiztegian, eta Almanach bere mintzaira iskrabatuzkoan bezala, Zubero-ko u bethe, gurea bezalkoaren adiarazteko, u emanen dugu dena den, eta bi ponturekin ü hekien ü chorrotebaren adiarazteko. Hala nola : Zelietao Jauna, zü zirade gure Aita. eta gü zure haurrak güüzü.

2. *Altchakoda*. — Tresna bat, harria nahi den neurrirat altchatzen duena.

3. *Altzamaiña*. — Iriñaren legunago edo latzago atheratzeko, harria behar den negurrian daukan tresna.

4. *Aphotoroa*. — Ardatzari behereko burua hartzen dioen ohatze edo altzoa.

5. *Ardatza*. — Tresna gain-beherako bat, zuzena, buru batez behar duena aphotoroaren barnerat jautsi.

6. *Botinaziloa*. — Ura sartzerat uzten duen idekidura.

7. *Bürünegi-Khobaiña*. — Untzi ideki, gainez laurkatu, behe-rago eta hertsiago dohan bat, bihia hartzen duena.

8. *Eihera-bulharra*. — Tresna guziak zein bere tokian jarri, eta hek guzien aintzin-aldea.

9. *Eskalampoa*. — Bihiaren bürünegi-khobañerat jauts-arazteko, bihia lehenik berari eman behar zaioen tresna ttikia.

10. *Karraska*. — Kaskak adiarazten dituen tresna. Gauza bera nola gure kalaka.

11. *Kokotsa*. — Harriaren erdiko idekidurari, teillarekin datchikon zurezko tinkagailua.

12. *Kolkahaga*. — Burdin ardatz birundatuzkoa.

13. *Phikoa*. — Burdin maillu zorrotz, harria pikatzen edo pikokatzen duena.

14. *Teilla*. — Harriaren itzularazteko, erdiko idekidurari kokotsarekin datchikon zurezko tinkagailua.

## II. — EHUNDEGIKO edo EHAILLE-LANTEGIKO

### GAUZA BATZUEN IZENAK.

15. *Aazta*. — Kharbe edo garba-lanak, liñhoari khentzen dioen purruska deus onik gabekoa.

16. *Arestelia*. — Ardatz gothor etzan bat, irazki-hariak itzulika biltzen eta atchikitzen dituen.

17. *Arkola*. — Liñho hariaren eta ichtupa hariaren artekoa.

18. *Bargea-ziloa*. — Hari berriaren urean gozatzen emateko tokia.

19. *Bekhatütcha*. — Oihal landerki puchka, bi errien artean hartzen dena, hariari lotzeko, eta astalkatzean errien ez pikatzeko <sup>1</sup>.

1. — Hitz hortan, eta ondoko bietan, hasi behar izatu da erraten *bethatutch*. *Bethatcha* edo phedachu bat da, landerki deus gutitako, chilho ttagagailu bat. *Bethatutch* baino errechago zen errateko *bekhatutch*.

20. *Bekhatütch-elhe*. — Funtsik gabeko solasak.
21. *Bekhatütch-gizon*. — Funtsik gabeko solasetarik dariozkona.
22. *Besübia*. — Oihalaren herriko negurria.
23. *Ehapüztana*. — Irazki-harien moko, bilbatu gabe geldituak.
24. *Kacha*. — Lantzaderak alde bat eta bertze deratian baria, jotzen eta tinkatzen duen tresna.
25. *Lantzadera*. Tutarekin baria, bilbatzeko, alde bat eta bertze derabilkan tresna.
26. *Phildüna*. — Hariaren eta oihalaren phutchuka, oihala eta baria itsusten dituen.
27. *Trebesera*. — Zangopetako derabilkan, lokharriz moldatuzko tresna.
28. *Tüta*. — Khanabera mehe zathi bat, hari itzulikatuz bethea, lantzaderan baria alde bat eta bertze deramana.
29. *Tütadera*. — Tresna, tutaren hari itzulikatuz bethetzekoa.
30. *Uztüpa*. — Hari hoberenetik bertzea, ichtupa.

### III. — GAUZA BATZU-BERTZEREN IZENETARIK.

31. *Abüramenka*. — Ustekundez.
32. *Aiphütü*. — Bihi edo hazitik, tinkaka atheratzen diren landare mokoak (Ikus Alkhotü).
33. *Aizejoa*. — Zur erdiratu edo fruitu zimur, haizeak chukhatuak. Airejoa.
34. *Akhürazgora*. — Erroz gora, hortzez gora.
35. *Alkhotü*. — Bihitik tinkaka atheratzen diren landare mokoak (v. aiphütü.)
36. *Amnios*. — Haur sorthu beharra dagoen untzi urez bethea. (Ikus Garazpena).
37. *Arkhoil*. — Ahari ez osoki chikhiratua.
38. *Arnilla*. — Gilzurrina.
39. *Arozila*. — 1° Gilz edo gakho-zilho aphainduzkoa ; 2° Oihalaren zilho ustekabeko bati, orratzaz eginikako tapagailu pollita.
40. *Arraza*. — Herresa (Jokoko edo tratu bateko).
41. *Arüna*. — Mendi-bide zut eta harritsua.
42. *Astizionia*. — Adimena, adi-arazmena.
43. *Athünez*. — Asmuka, itsu-mandoka (Ikus Esküchestüka).
44. *Athüstatzia*. — A smuka, itsu-mandoka abiatzia (Ikus Athünez).
45. *Auritzia*. — Anderatzia, funditzia.
46. *Azaua*. — Espala (ogi).

47. *Babak (Eskü)*. — Tresna giderrak eginikako mando edo gogordurak.
48. *Bahometa*. — Haize eta uri zirimola.
49. *Basagaitza*. — Ihizi lohi edo gaichtoa,
50. *Basakanata*. — Hargamasazko pareta.
51. *Begi-akhülliak*. — Misera edo lunetak. (Santa-Graziako hizkuntza).
52. *Beherako-heia*. — Sabel-min idorrak.
53. *Belamina*. — Belhar ezin gehiago khirats bat.
54. *Belhar-ephaile-ophea*. — Hortarako langile multzo bat.
55. *Belhar naia*. — Belhar lerroa, ephaiten edo pikatzen denaren arabera.
56. (*Belhar*) *bedaphila*. — Bigarren eguneko phulo edo meta ttikiak.
57. *Belharrak kokotan*. — Idortuz, hertzeko abiaduran edo hertuche direlarik, meta larriagotan.
58. *Belharrak modoillan*. — Emanak meta handitan.
59. *Berekan (Arraiñak)*. — Udatsean elgarren ondotik.
60. *Berjes*. — Ustekabeko ume bat, hala nola otsotik eta zakhurretik.
61. *Beruna*. — Bendaña edo mahats biltzeka.
62. *Bis-arren*. — Bai beras.
63. *Botchü*. — Mendi-harroka muthurrak
64. *Bouhada*. — Uzta-lanetako hats-hartzea.
65. *Chasko*. — Naka, nakasta, gaitzigarri den trufa bat.
66. *Chükho-charpa*. — Philtchar edo trapu tchar, zer nahiren chukhagailu bat. Norbeiti eratchikimenduz erraten zaioen hizkuntza.
67. *Deguta*. — Hertsiegiz edo laburregiz echkacha.
68. *Demendaria*. — Ardiaren hera.
69. *Desgantzoka*. — Trastea. Erraten ere da : Zakhu gaizki josia.
70. *Deskarat*. — Itsusi, moldegaitz.
71. *Deskoster*. — Jenderik, ez etcherik gabeko toki bat.
72. *Ehütükoa*. — Gauza ilhunak, argitasunikgabeak.
73. *Emerdi*. — Emaztez erraten dena; erdi, edo zeinabrez bezala.
74. *Entsarria*. — Nekhaitz elhurrezko dirauena.
75. *Erdalotsa*. — Harrabots gaitza.
76. *Ereziloa*. — Zuhamu bati egin zaioen sakhia.
77. *Erlonia*. — Arrobi, herrestari ttiki phozoindatu bat.
78. *Erphai*. — Ephaizka, ichil eta geldi, ihizi zain.
79. *Erphürü*. — Bi erhi mokoz har daiteken bezambat.

80. *Erreskiñatzia*. — Erdi hestea iguzkitan begiak.
81. *Erüpea*. — Ordoki edo zelhai apha bat.
82. *Esgota*. — Moldegaitz edo antzerik gabea. (Ikus Eskanecha.)
83. *Eskanecha* — Moldegaitz edo antzerik gabea (v. Esgota).
84. *Esketchekia*. — Esku tinka, zikhoitza.
85. *Eskonfarta*. — Itchura eder eta sendoko jendea.
86. *Eskütchestüka*. — Asmuka, itsu-mandoka. (Ikus Athünez.)
87. *Espüntzia*. — Hagak bi aldetarik emanik, berho baten hetarat bilhurrez tinkatzia.
88. *Estokatzia*. — Atherbe estalki bat, estoketan ematea. (Ikus Heipia.)
89. *Ezeztatü*. — Gauza den bat, ezdelakoarentzat iragan-arazi.
90. *Falphak*. — Lurpeko, luharga, luhartz, landareguri-jaleak.
91. *Firfilla*. — Erhauts arinki barraiatu bat.
92. *Garazpena*. — Sorthu baino lehen, haurra dagoen untzi urez bethea. (Ikus amnios.)
93. *Garioa*. — Zuhamuaren loditasuneko zerra bat.
94. *Gatchantzia*. — Min baten gaichtatzia, ur eta su hartzia.
95. *Gazna beratia*. — Gasna hartsu, orhatu edo joa.
96. *Gerthü*. — Esku oneko oihal bat.
97. *Ginharria*. — Zuhamu-bihotz sendoa.
98. *Gizena*. — Zuhamuaren aurkhintza guri achaleratekoa.
99. *Gloskan*. — Multzoan.
100. *Goiphia*. — Salda gain gogortu edo gatzatua.
101. *Gorkhüratü*. — Aro borthitzetik gerizatu (Ikus Gorthüstatü.).
102. *Gorotz-eskarpitü*. — Ongarria hedatu.
103. *Gorthatü*. — Elgar berotu, gozatu.
104. *Gorthüstatü*. — Aro gaitzetik gerizatu (Ikus Gorkhüratu.).
105. *Gorthü*. — Ogi mutchitzerat emana, laberat sarthu eta berotuz gozatu.
106. *Gotaña*. — Khaillua, chingar-azala.
107. *Habia*. — Harri zilho edo altzo, ardatzaren hartzekoa.
108. *Harrikott*. — Garailla edo graba chehea.
109. *Heyatsa*. — Antzara hegal sukhaldeko mahain-gain eta alkhi-gainen farrastatzekoa.
110. *Heipia*. — Estokatuzko egurtegia (Ikus Estokatzia.).
111. *Hoia*. — (Aro) goibela.
112. *Hiültzia*. — Behia bath-arazten hastia, errechkiago deizteko.

113. *Hürtzia*. — Urritz hur emailea.
114. *Ilhazki*. — Harizko oihal, zaurientzat hariz hari berechia.
115. *Iskintzia*. — Beltzuri edo bekhurunde egitea (Ikus Eskiñatzia, erreskiñatzia.).
116. *Ithelür*. — Alhor bazterreko lur, erdirat arthikia, lehem-biziko hildoaren harat etzateko.
117. *Ithüña*. — Iraurgai ongarriz ithoa.
118. *Jakisaria*. — Azinda edo abere bat edo bertzeren atchik eta haz-saria.
119. *Kaatatcha*. — Gazteriaren josteta, ederki eta airoski aphainduz egitendena.
120. *Kalkoa*. — Kaikua.
121. *Kheützia*. — Kharmintzia.
122. *Khübila*. — Ohe-zero biribila.
123. *Khübilatii*. — Khurubilkatu.
124. *Klochela*. — Bildots hesgailu berecha.
125. *Koroka*. — Chothiña. (Ikus Zothena).
126. *Kosterra*. — Atherbe estoketan emana (Ikus Heipia).
127. *Kotchia*. — Kaiku giderrik gabea.
128. *Küdeatzia*. — Lema.
129. *Küdüziata*. — Zikhoitza.
130. *Kunderrak*. — Arrosarioak.
131. *Künküsa*. — Zuhamu zahar idorra.
132. *Legena*. — Negela.
133. *Liga*. — Karrera, gaphirioen finkagagailua. (Ikus Soba).
134. *Linkatcha*. — Izerdi agertu nahiz hasia.
135. *Lüroa*. — Sorhoetako aphalgunea.
136. *Maiatza*. — Maiatzeko edo libertateko zuhaitza.
137. *Maka*. — Buru harroko jendea; bere buruaz hartua.
138. *Markizatzia*. — Ardiari, errape sahetsetako ilearen khen-zea.
139. *Mastükü*. — Elhepide, solaspide berri bat.
140. *Mene*. — Bothere.
141. *Mügartü*. — Azkartu, borthiztu.
142. *Mühüllü*. — Hacha (firrilla). (Ikus Natsa.)
143. *Musiña*. — Ardien muthurreko zakharrak.
144. *Mütücha*. — Jende tontoa.
145. *Nabasi*. — Nahasia, ausarta.
146. *Naia*. — Laia, aihen aldaska (Ikus Tacha.).
147. *Natsa*. — Orga-hacha (Ikus Mühüllü).
148. *Noha*. — Bekhaizteria.

149. *Obriska*. — Abliestea, berri auhendagarri baten ematea.
150. *Ohugia*. — Acheri sainga.
151. *Olhantcha*. — Altchagarria (Orhe).
152. *Oritza*. — Lanaren azken bururantz.
153. *Orratza*. — Etche-bizkar zuzen burutik bururakoa. (Ikus Trabatetcha).
154. *Pherna*. — Berma zakhia, zango hezurra, zangarra.
155. *Prekazanta*. — Atzarria, ernea.
156. *Putikan*. — Laur hazka, uztarka, putarka.
157. *Saiak*. — Basa ihizi gaichtoak (Ikus Basagailza).
158. *Senthoralia*. — Beila saindua.
159. *Senthoralzalia*. — Beilatiarra.
160. *Sizaria*. — Lebañazalia.
161. *Soba*. — Karrera, gaphirioen tinkagailua. (Ikus Liga).
162. *Sübilla*. — Etche zola-zolako zureria.
163. *Suhatsa*. — Taula heze, sapa edo izerdiaren khentzeko, uritan ezarria.
164. *Sürlürioa*. — Besta buru ospatsua.
165. *Tacha*. — Naia, laia, aihen aldaska (Ikus Naia.).
166. *Tanteagia*. — Erbiak pikorrek egiten ohi dituen lekhoa.
167. *Tchamarda*. — Pichuntchi, aiuta emateko derabilkatena.
168. *Tentuz*. — Buruz, zentzuz.
169. *Terrepentian*. — Betbetan, tirripiti-tarrapatata.
170. *Thahagia*. — Haga lodia.
171. *Tirilikaz*. — Tirripitika, uztai bat bezala.
172. *Trabatetcha*. — Etche bizkar zurezko, zuzen, burutik bururakoa. (Ikus Orratza).
173. *Turnadera*. — Umil edo antonadar luzarakoa.
174. *Uhaldika*. — Uholdeka, gaindika.
175. *Undats*. — Undats gabea, funts gabea.
176. *Undükioa*. — Trufa gaitzigarria.
177. *Undüski*. — Negurriz kampo.
178. *Undüs*. — Chahutzaile.
179. *Ur*. — Hurbil.
180. *Urrikitzia*. — Berririk altzairustatzia.
181. *Urrüthoia*. — Oilloen barneko arroltze-untzia.
182. *Urtharia*. — Urtheko chingarra, urtheko den gauza.
183. *Zahardoka*. — Zigor gaitz bat.
184. *Zaiona*. — Haur zaia, haur soina.
185. *Zebatü*. — Garrazki ekharri, altchatu gogorki.
186. *Zerephel*. — Erdi ephel.

187. *Zer muta?* — Zer oihal? Zer eskutako oihal?  
 188. *Zibila.* — Azaleko alderat erdiratua den zura.  
 189. *Zifraña.* — Saldan egosizko iriña. (Santa-Graziako hizkuntza).  
 190. *Zikhotz.* — Zuhamu barnez erdiratua.  
 191. *Ziphürtzia.* — Nekhatuaren bidez, itchuraren galtzia.  
 192. *Zitzikatu.* — Haragikiz bethe.  
 193. *Zokhidura.* — Belharki metan utzien berodura.  
 194. *Zolata.* — Zaphatadura.  
 195. *Zorkhan.* — Saldu zorretan, eskuratzeko itchura gutitan.  
 196. *Zotheña.* — Chothiña. (Ikus Koroka).  
 197. *Zürphoa.* — Ongarri metatua.  
 198. *Zürrümpia.* — Charrampiña.  
 199. *Züskeia.* — Huntz hosto edo chira zaiñ edo zangoa.

### HITZ-ONDOKOA

J. B<sup>e</sup> *Althabe*, bilzar-lagun zenak, hitz ahalaz garbi horiek gure bilkhurarat hel-araziz, Euskal-mintzairari egin dioen laguntzaz bertzalde, bazituen lehenagotanik bi liburutto euskaraz argitaratuak : bata 1900 garrean, « *Ciberouco botanika edo lantharen jakitatie* », eta bertzea, 1904 garrean, « *Houn-kaillu berrien enthelegia Ciberouko laborarier* ». Bi liburutto horietan ere, Hiztegiak ez dituen hitzak altchatzeko balaitezke, eta gure bilzar-lagun goretsiari esker, Hiztegiak artha dutenek, hortik errechki bil detzakete.

J. B<sup>e</sup> *ALTHABE* zenak bada, urhaspide horiek guzien bidez, Bilzar-lagun guziera irakaspén ohartgarri bat enlaten daroku : zerik eta, batbederak behar ditugula, arrotzerat emanak diren euskal-hitz garbiak bildu eta bilkhurarat ekharri.

Aithortzeko balimbadugu ezen, Don *RESURRECCION-MARIA AZKUE*-koak, Euskal-Herri guzirat agertuz eta euskal-herri guzietako hitzak ahalaz bilduz, lan bat egin duela, orai artean bertze bakhatek ere egin duen baino gehiagokoa, ez da gutiago egia, euskal-hitzen erdiak ez bada, heren bat gutienetik ezin eskuratu dituela. Lohaken bada gutarik batbedera, bere ingurumeneko hargin, zurgin, okhin, harakin, harotz, eta zapatagin, bai eta lur langile, larru aphaintzale, artzain, ihiztari, arrantzale eta salerostunetarat, galde letzoketen eta bakhotchari bere urhaspide-tako gauzen izenak, arte laburrez harrituak gindaudeske, ikusiz zembat hitz lagozken altchatu beharrak.



Holako eta gehiagoko zerbeit eginik dago, *Don Frederico Baraibar-ko* gure bilzar-lagun, Bitorian irakaslun dena. Huna zer gisaz. Alabako probintzia gutiz gehienak galtzerat utzia du *Euskara*. Erdaraz mintzo dire Alabesak, ez hargatik erdararekin nahastatu gabe zembeit euskal-hitz. Erdara den bezalako hura bada, Jaun aiphagarri horrek eskuetarart hartu du, ahalaz hurbildik eta ahalaz artha handiz ikusi du, eta, berak dioena, khen-duak badiozka *ehen bat euskal-hitz*, eta hetarik zembeit oraiko Hiztegietan edireten ez direnak, Eta, ez dugu beldurtzeko, erdara hura ez duela oraino hobeki haztakatuko, eta ez diozkala gehiagoko dituzken euskal-hitzak atheratuko. <sup>1</sup>

Guziaren buru bada, *Bilzar-lagun eta Euskaldun Anaia maiteak*, gogoari emateko badiogu, guk ere, euskalzaleen izena dak-harragunek, zeinek gure tokietan egiteko, eta baitezpada egiteko dugula, J. B<sup>te</sup> ALTHABE, gure lagun lasterregi zenduak, eta Don FREDERICO BARAIBAR-ko, behinere baino distirantago denak, zeinek bere moldez, molde ederrez, egin dutena : hori da, guk ere, dela gure lan artetan, dela beharrezko gure harahunatetan, egin dezakeguna : bazter eta zokho guzietarik, euskal-hitz arrotzu eta arrotzerat emanak direnen artha handiz eta handienez biltzea, eta bilkhurarat ekhartzea: bide hortaz eman dakiонтzat, gure mintzaira zahar eta maiteari, eman dakioken *iraupen, hedamen eta distiradura* guzia, Euskalzaleen-Bilzarrak halaber, bozkaria-garri bezain goresgarri dukeena.

Bis-arren ! Halabiz !

APHEZ MARTIN LANDERRECHE  
Bilzar Iskribaria.

DONIBANE-LOHITZUNEN, Ephailaren lehenean, 1911garrenean.

---

1. — Ikhus, don Julio URQUIJO-koaren 1907ko Hilabetekarian, 2garren eta 4garren athermaldiak.

---